

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2021 000004230

Espediente-zenbakia: 2020/KON_NE_G0007**Xedea**

Berdintasun Plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzu kontratuaren 1. luzapena

Aurrekariak

Lehenengoa: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko urriaren 27an, erabaki zuen Berdintasun Plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzu kontratuaren espedientea onartzea eta publizitate gabeko prozedura negoziatuari hasiera ematea.

Bigarrena: 2020ko azaroaren 2ko dataz, gonbidapenak bidali ziren hurrengo enpresei: Elhuyar-Zubize, S.L.U, LKS, S.Coop, Prospektiker, S.A, Gisma Asesoramiento, S.L eta Gehilan 2000, S.L.

Hirugarrena: Epe barruan, hurrengo enpresak aurkeztu zituzten proposamenak: Gisma Asesoramiento, S.L eta Gehilan 2000, S.L.

Laugarrena: Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua bideratu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko urtarrilaren 16an, kontratua GEHILAN 2000, S.L enpresari esleitzea erabaki zuen urte baterako, eta urtez urte luzatzeko aukerarekin, gehienez ere 4 urteko epe mugarekin.

Bosgarrena: Kontratuaren arduradunak luzapenaren justifikazio txostena egin du, 2021eko urriaren 2ko dataz.

Seigarrena: Kreditu atxikipen nahikoa dagoela adierazten duen dokumentua dago (RC 2020/000200).

Zazpigarrena: 2021eko azaroaren 11an, Kontuhartzaileak fiskalizazio txostena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Berdintasun Plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzu kontratua 2022ko urtarrilaren 29an amaitzen da, baina kontratazioa oinarri duen Administrazio-baldintza zehatzen agirien 4. atalean, kontratua urtez urte luzatu daitekeela aurreikusten da, gehienez lau urtera arte.



Kontratua luzatu ahal izateko, luzapenaren erabakia kontratuaren iraunaldia amaitu baino lehen onartu beharra dago, hau da, 2022ko urtarrilaren 29a baino arinago. Halaber, luzapena derrigorrezkoa da esleipendunarentzat, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 29.2 artikulua araber, jakinarazpena iraupena amaitu baino bi hile arinago egiten bada.

Bigarrena: Kontuan izanda hornidura era egokian eman dela, eta kontratua luzatzeko aukera dagoela, luzapena egikaritzea ikusten da eraginkorra.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 29.2 artikuluan xedatutakoa hartu behar da kontuan.

Laugarrena: Bestalde, kontratuaren luzapena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuaren Bigarren Xedapen Gehigarrian jasotakoaren araber, eskumena alkateari dagokio.

Erabakia

Goian aipatutakoa kontuan hartuta, honakoa erabakitzen dut:

LEHENENGOA: Berdintasun Plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzu-kontratuaren lehenengo luzapena onartzea, urte bateko epearekin, 2022ko urtarrilaren 29tik 2023ko urtarrilaren 28ra arte (biak barne).

BIGARRENA: 29.887,00 euroko gastua onestea, dagokion aurrekontu kontu-sailaren kargura.

Kontratua luzatzearen ondorioak juridikoki eraginkorrak izateko, ezinbestekoa izango da 2022ko eta 2023ko Udal Aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egotea, baina horrek ez du esan nahi udala dagokion aurrekontu-aplikazioa hornitzetik salbuesten duenik.

HIRUGARRENA: Udaleko zerbitzu ekonomikoetara igortzea, jakinaren gainean egon daitezen eta behar diren ondorioak izan ditzan.

LAUGARRENA: Luzapenaren onespina kontratatari jakinaraztea, erabaki honen aurrean dituen errekurtsoak adieraziz.

BOSGARRENA: Kontratugilearen profilean argitaratzea eta Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 346.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

SEIGARRENA: Hurrengoko Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

